

Hezkuntza Marko Orokorra

SANTO TOMAS LIZEOA



SANTO TOMAS
LIZEOA

Liburu hau munduko edozein lekutan irakurri, marraztu, eztabaidatu eta irudikatu ahal izateko pentsatu dugu.

Liburuan zehar zure galderak, gogoetak eta marrazkiak txertatzeko espazio zuriak gorde ditugu.

Milesker!



Hezkuntza Marko Orokorra

SANTO TOMAS LIZEOA

Agurra

Familia agurgarriak,

Duela mende erdi baino gehiago, euskal kultura eta hezkuntzarekin konpromiso handia zuen pertsona talde batek, testuinguru politiko eta sozio-kultural desberdin batean, Santo Tomas Lizeoa hezkuntza-proiektua sortzeko ekimena izan zuen. Zorionez, ahaleginak saria izan zuen, eta ikastolak, ikuspegi gizatiar eta berritzailearekin, familiekin batera lan egin du, milaka ikasleren hazkunde pertsonal eta akademikoan.

Baina mende erdi baino gehiago nahikoa da gizarte batean aldian-aldian etenaldi bat egitera eta hezkuntza-premia berriei buruz hausnartzera gonbidatzen duten aldaketa-prozesuak gerta daitezen. Une horietako bat bizi dugu:

- Demografiari dagokionez, zahartze-prozesuan dagoen gizartea gara, jaiotza-tasa oso baxuak dauzkagu eta bizi-itxaropenak gora egin du, familia-egitura nabarmen aldatu da eta kultura-aniztasun handiago bati erantzuna eman behar diogu.
- Bestalde, teknologiaren aurrerapenak eragin nabarmena du pertsonen ohituretan, informatzeko eta komunikatzeko moduan. Beraz, baita ikasteko moduan ere.

Faktore horiek eta beste batzuk dira ikastolako komunitatea – familiak eta profesionalak – Hezkuntza Marko Orokor berri hau egitera gonbidatzen dutenak, egungo eta etorkizuneko hezkuntza-erronkei aurre egiteko koherentzia eta indarra emango digutenak: zer pertsona mota garatu behar dugu? Zein izango dira oinarrizko hezkuntza-ildoak?

Parte-hartze eta gogoeta handiz egindako lana izan da, eta Santo Tomas Lizeoaren komunitateko kide diren pertsona guztientzat erreferentziazko testua izan nahi du, egindako galderei erantzungo diena eta ikastolaren ezaugarriak, misioa, ikuspegia eta balioak gordeko dituen.

Bidaia hasi baino ez da egin, baina badakigu bidea nola egin eta nora iritsi nahi dugun.

Idoia Otaegi Aizpurua

Santo Tomas Lizeoa Loistarain
Kooperatiba Elkarteko Lehendakaria

Aurkibidea

00

06

01 Sarrera

- 1.1 Zer da Hezkuntza Marko Orokorra? **08**
- 1.2 Nola heldu gara honaino? **14**
- 1.3 Zergatik eta zertarako? **22**

28

02 Pertsona-eredua

- 2.1 Pertsona-ereduaren definizioa **30**
- 2.2 Etorkizuneko testuingurua **32**
- 2.3 Pertsona-ereduaren elementuak **36**
- 2.4 Santo Tomas Lizeoko pertsona-eredua **40**

52

03 Oinarri Pedagogikoak

- 3.1 Nolako ikastola nahi dugu? **54**
- 3.2 Printzipio psikopedagogikoak **70**
- 3.3 Oinarrizko hezkuntza-ildoak **80**
- 3.4 Curriculuma. Zer eta zertarako? **92**

Sarrera

01

Zer da Hezkuntza Marko Orokorra?

Markoa, definizioz, gai bat kokatzen duen esparrua izanik, Santo Tomas Lizeoko Hezkuntza Marko Orokorrak ikastolak hezkuntza ulertzeko eta aurrera eramateko aukeratutako elementuak definitzen ditu.

“Hezkuntza Marko Orokorraren helburua ikastolako partaide guztiontzat lanerako tresna bat izatea da.”

Definizioa

Dokumentu honetan, beraz, azken urteetan komunitateko kideok egindako hausnarketaren ondorioz, ikastolako hezkuntza-eredua definitzeko gakoak zehaztu ditugu.

Nolabait esateko, hurrengo ataletan, datozen urteetarako geure buruari jarri dizkiogun joko-arauak definituko dira. Egindako prozesua kontuan hartuz, eta familien, hezitzaileen eta ikasleen parte hartzeari balioa emanez, guztion artean partekatu eta guztiok geure egiteko printzipioak jaso dira.

Hezkuntza Marko Orokor honen xedea ez da dokumentu teoriko sakon bat sortzea. Marko honen helburua ikastolako komunitatea osatzen dugun partaide guztiontzat lanerako "tresna" bat izatea da, egunerokoan gure jarduna gidatuko duen iparra, alegia.

Norentzat idatzi dugu Hezkuntza Marko Orokorra?

Orokorrean, Santo Tomas Lizeoko komunitatea osatzen dugun guztiontzat idatzi dugu Hezkuntza Markoa. Irakurle bakoitzari, dagokion lekutik, ikastolaren jardunera gerturatzeko baliagarri izango zaio.

Hezitzaileontzat, noski, ezinbesteko dokumentua da, gure lanari zentzua, norabidea, garrantzia eta koherentzia emango baitizkio. Hezitzaileon jarduna diseinatu, aurrera eraman eta ebaluatzeko erreferentziazko dokumentua izateko helburuarekin jaio da markoa.

Familia eta ikasleentzat ere markoa garrantzitsua da, ikastolaren hezkuntza-eredua ulertzeko baliagarria izateaz gain, guztiok partekatzen dugun pertsona hezteko "lanean", oinarri partekatu bat edukitzeko aukera eskaintzen baitu.

Azkenik, Santo Tomas Lizeoa ezagutu nahi duen edonorentzat oinarrizko dokumentua da, zer garen, zertarako eta nola ari garen ulertzeko oinarriak emango baitizkio.

Helburua hau izanik, ikastolako kide guztiok ulertzeko moduko dokumentua egin dugu, justifikazio teoriko sakonetan sartu gabe, gure eguneroko jardunean eta begiradan guztioi lagunduko digun dokumentua izan dadin.

Zer atal ditu Hezkuntza Marko Orokorrak?

Definitu dugun Hezkuntza Marko Orokorrak 5 atal nagusi ditu:

- [Pertsona-eredua.](#)
- [Nolako ikastola nahi dugu?](#)
- [Printzipio psikopedagogikoak.](#)
- [Oinarrizko hezkuntza-ildoak.](#)
- [Curriculumaren garapenerako irizpideak.](#)

Atal horietako bakoitzak lotura estua du gainontzekoekin eta ezin dira ulertu bata bestea gabe. Hurrengo orrietan sakon garatuko ditugun arren, sarrerako atala bakoitzaren definizioa eman eta egituraren logika azaltzeko baliatuko dugu.



Pertsona-eredua

Ikasleari munduan eta Euskal Herrian bizi beharko dituen erronkei aurre egiteko gaitasuna garatzen lagunduko dioten ezaugarrien bilduma da pertsona-eredua. Gure Hezkuntza-ereduaren iparra da, izan ere, gure xedea ikasleei pertsona-eredua lortzeko baliabideak eta bizipenak eskaintzea baita.



Nolako ikastola nahi dugu?

Ikasleek pertsona-eredua garatu ahal izan dezaten nolako ikastola behar dugun definitu dugu komunitateko kideon artean. Ikastolaren errealitate osoa hartzeko, 6 eremu ezberdinetan egin dugu ariketa:

- **Edukiak, metodologiak eta balioak.**
- **Ikasleak eta hezitzaileak.**
- **Hezkuntza-espazioak.**
- **Denbora eta antolaketa.**
- **Baliabideak eta teknologia.**
- **Familiak eta ingurua.**



Printzipio psiko-pedagogikoak

Oinarrizko hezkuntza-ildoak zientifikoki justifikatzen dituzten printzipioak dira. Eremu honetan, literatura oso zabala dago eta gure jarduna orientatzen lagunduko diguten printzipio nagusiak identifikatzen eta ulerterraz egiten saiatu gara.



Oinarrizko hezkuntza-ildoak

Oinarrizko hezkuntza-ildoak hezkuntza-ereduaren lehen zehaztapen maila dira eta, beraz, gure jarduera guztiak orientatzen dituzten lerro eta estrategia nagusiak. Oinarrizko hezkuntza-ildo komunak ikastolako eremu eta etapa guztietarako eta pertsona-eredua lortzeko bidean, ikasleei nolako bizipenak eskaini behar dizkiegun esaten digute.



Curriculum garatzeko irizpideak

Ikasleekin pertsona-eredua garatzeko baliabidea da curriculum; curriculumeko edukiak, konpetentzia espezifikoak eta funtsezko konpetentziak garatuz lortuko baitugu pertsona-ereduaren ezaugarriak garatzea.

Curriculum, baina, oso anitza eta zabala da eta curriculumaren irakurketa propioa egiteko irizpideak finkatu ditugu atal honetan.

Nola heldu gara honaino? Zer ezaugarri ditugu? Zer gara?

Hirurogei urtetik gora ditu Santo Tomas Lizeoak. 1960. urtean, Urumearen ertzean sortu zen ikastola txiki hartatik gaur egunekora gauzak asko aldatu dira, bai ikastolaren barruan eta baita ikastolatik kanpo ere.

"Santo Tomas Lizeoak bidelaguna, euskal sustraiak dituena, bizia eta inspiratzailea izan nahi du, bere ikasle guztiek munduan euren lekua irudikatu dezaten."

Hirurogei urtetik gora ditu Santo Tomas Lizeoak. 1960. urtean, Urumearen ertzean sortu zen ikastola txiki hartatik gaur egunekora gauzak asko aldatu dira, bai ikastolaren barruan eta baita ikastolatik kanpo ere. Aldaketak aldaketa, gaur egun Santo Tomas Lizeoa ulertzeko, ezinbestekoa da egindako ibilbideari begiratu bat botatzea, atzean utzitakoak gogoratu eta, batez ere, orduko eta gaur egungo ikastolek konpartitzen dituzten baloreak azpimarratzeko.

50 urte bete genituen 2010. urtean eta urteurren hura ospatzeko kaleratu genuen liburuan, honela dio orduan lehendakari genuen Pello Goikoetxeak, bere sarrerako hitzetan: "Gure historiaren hasiera honela idatz daiteke: behin batean, aspaldi, beraien hizkuntza eta herria maite zuten euskaldun batzuek seme-alabak euskaraz, euskal zaletasunean eta bizikidetzan egoki eta aberatsean hezi nahi zituztela erabakitzen dute, eta horretarako Donostian ikastola bat sortzea erabakitzen".

Liburu berean, eta hezkuntza proiektuari buruzko atalean, honako hitz hauek ere ageri dira: "Bere planteamendua berritzailea izan zen zentzu batean baino gehiagotan. Aipatutako euskalduntasunaz gain, Lizeoak, bere Hezkuntza Proiektuan, pedagogia modernoa eta beste elementu berri bat ere bazituen oinarri: hezkuntza mistoa, neska-mutilak geletan elkarrekin egotea, alegia. Hauetaz gain, gela bakoitzeko ikasle kopurua mugatzea, ariketa fisikoari garrantzia ematea, ikastorduen murrizketa, norberaren izaeraren formakuntza...". Gai hauetako asko gairatutako eztabaidak izan arren, Santo Tomas Lizeoak bere hastapenetatik izan duen berrikuntzarako grinaren adierazle dira.

Lehen esan bezala, gauza asko eta gauzak asko aldatu dira ikastolan ordutik. Bidean, ikastola laikoa izateko erabakia hartu genuen, elkarte anonimo izatetik guraso kooperatiba izatera pasa ginen, publikazioaren eztabaidan ikastola izaera mantentzeko erabakia hartu genuen eta bitartean, hainbat eta hainbat hezkuntza legerekin lan egin dugu.

Baina aurreko hitzak gogora ekarriz, ikastolaren izaerak bere horretan jarraitzen duela esan dezakegu, ikastola euskalduna, modernoa eta pertsonengan zentratua izatea baitugu xede. 2020an egindako hausnarketa estrategikoan adierazi bezala, Santo Tomas Lizeoak bere ikasle guztiek munduan euren lekua irudika dezaten bidelaguna, euskal sustraiak dituen, bizia eta inspiratzailea izan nahi du.

Eta aurrera begira, Santo Tomas Lizeoa zer den definitzeko, 5 ezaugarri hauek nabarmenduko genituzke:

- Hezkuntza euskalduna.
- Zerbitzu publikorako bokazioa.
- Kooperatiboa eta solidarioa.
- Beste ikastolekin saretua.
- Pedagogia-berrikuntzarako grina.

Hezkuntza euskalduna helburu duena

Aurreko atalean garbi geratu denez, euskara eta euskal kultura berreskuratzeko eta sozializatzeko helburuarekin sortu ziren, besteak beste, baina batez ere, ikastolak orohar eta Santo Tomas Lizeoa zehazki, 60. hamarkadan. Frankismoaren garai gordinak bizi ziren orduan, eta euskararen eta euskal kulturaren ezagutza areagotzeko eta transmisioa bermatzeko, eremu eraginkorrena hezkuntza zela begitandu zitzairen orduko familiei.

Gauzak asko aldatu dira orduetik eta euskararen ezagutza nabarmen areagotzea lortu den arren, garai hartakoek hezkuntzari jarri zizkioten helburu guztiak ez dira bete. Euskararen ezagutza eta erabilera datuek eta belaunaldi gazteek euskararekiko eta euskalduntasunarekiko duten atxikimenduak hala adierazten digute.

Horregatik, gure aurrekoak ikastolak sortzera eraman zituen motibazioak bere horretan jarraitzen duela uste dugu.

XXI. mendean, euskarak behar dituen euskal hiztun kompetentek (ezagutza-maila esanguratsua dutenak), kontzienteak (euskararekiko motibazioa eta atxikimendua dutenak) eta koherenteak (euskaraz egiten dutenak) sortzea Santo Tomas Lizeoaren helburu nagusietako bat izan behar du.

Norabide horretan, euskararen ardaztutako hezkuntza eleanitza eskaintzeaz gain, hiru eremu jorratu behar ditugu gure ikasleekin:

- Euskararen eta, oro har, hizkuntza gutxituen egoera eta berreskurapenari buruzko ezagutza eta kulturen arteko bizikidetzarako prestakuntza ematea.
- Bakoitzari dagokion adin eta eremuari lotutako euskara lortzeko aukerak eskaintzea.
- Euskal kultura modu sortzailean eta propioan bizitzeko baliabideak ematea.

Zerbitzu publikorako bokazioa

Donostiako guraso haiek Santo Tomas Lizeoa sortu zutenean, euskara sustatzeko helburuaz gain, orduko hezkuntza sistemak zituen hutsuneak betetzeko nahia ere bazeukaten. Garai hartako hezkuntza-sisteman nagusi ziren Eskola Nazionalaren eta Kristau Eskolaren gizarte ikuspegiaren kontra, eredu berri bat garatzeko ere sortu ziren; gizarteari zerbitzua egiteko asmoz, alegia.

Izaera juridikoa, publiko ez publikoaren eztabaida, albo batera utzita, bokazio hark bere horretan dirau gurean, eta sinisten dugu gure jardunaren xede nagusietako bat pertsonaren eta komunitatearen beharrei erantzutea dela. Sinesmen horretatik baino ezin da ulertu gure misioa: tokatu zaien mundua bizi eta mundu hori hobetuko duten ikasleak heztea.

Horregatik hartzen dugu konpromisoa, besteak beste, gure ingurune hurbileko eta urruneko erakunde eta pertsonekin lankidetzan aritzekoa, elkarlan horretatik pertsona eta gizarte hobeak lortuko diren uste osoa baitugu.

Kooperatiboa

2002an elkarte anonimo izatetik "Santo Tomas Lizeoa-Loistarain kooperatiba elkarte" izatera pasa ginen. Ikastolako familia guztiak dira kooperatibako bazkide eta, beraz, dagozkien eskubide eta betebeharrak guztien jabe. Aldaketa hura izaera juridikoaren aldaketa izan zen, baina bat egiten du ikastolak betidanik izan duen kooperazioaren eta lankidetzaren baloreen aldeko apustuarekin.

Konbentzimendutik bizi nahi dugun kooperatiba izaerak ezinbestean garamatza familiekin eta ikasleekin lankidetzaren baloreetatik harremantzera. Gure jardunaren ezaugarri izango dira, beraz, honako bi hauek:

- Ikastolaren egitura eta kudeaketan familien eta ikasleen parte hartzea sustatzea, horretarako baldintza eta egitura egokiak eskainiz.
- Ikasleen artean lankidetzaren balioak lantzea, mundu hobea baterako oinarri direnaren sinesmenean.

Beste ikastolekin saretua

Hasierako ikastola haiek Ikastolen Elkarte sortu zuten 1969. urtean, lehen urratsetatik ohartu baitziren elkarlanean egin beharrekoa zela hasitako bidea. Geroztik, ikastolak asko ugaitu dira eta, egun, Euskal Herri osoko 114 ikastolak osatzen dugu Ikastolen Elkarte.

Sorreran bezala, bakoitzak bere aldetik baino, guztiak elkartuta indar handiagoa dugula pentsatzen jarraitzen dugu eta, ikastola eta ingurune bakoitzaren izaera propioetik abiatuta, uste dugu batzen gaituzten ezaugarri eta helburu komunak aintzat hartuz, elkarlanean jarraitzea ezinbestekoa dela.

Ikuspegi propioarekin eta kritikoarekin, Santo Tomas Lizeoarentzat ezinbestekoa da gaur eguneko eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko, Ikastolen Elkarteak ematen duen babesa eta akonpainamendua izatea.

Pedagogia-berrikuntzarako grina

Gure historiari egin diogun errebaso laburrean, garbi geratu da ikastolak bere sorreratik izan duela berrikuntza pedagogikoan murgiltzeko bokazioa. Izan ere, kalitatezko hezkuntza eskaini nahi badugu, ezinbestekoa da zientziak eta pedagogiak esaten digutenari adi, gure jardunaren inguruko etengabeko hausnarketa egitea, uneoro gure misioari ahalik eta ondoen erantzuteko.

Zentzu horretan, eskolaren eraginkortasuna eta eskola-eredua bera kolokan dauden une hau aukera paregabea da berrikuntzarako grina hori indartu eta bizi ditugun garai hauei ahalik eta egokien erantzungo dien ikastola lortzeko.

Honen guztiaren ondorio da, noski, komunitate osoarekin batera hasi dugun prozesu hau, eta epe luzerako prozesu horren pauso bat gehiago baino ez da Hezkuntza Marko Orokor hau.

Zergatik eta zertarako orain Hezkuntza Marko Orokorra?

Azkenaldian, etengabe ari gara entzuten hezkuntza sistemak eraldaketa sakona behar duela, oraingo eskemak ez diolako gaur egungo errealitateari behar bezala erantzuten.

“Ikastolaren misioa datorren munduan biziko diren eta mundu hori hobetuko duten pertsonak heztea da.”

Azkenaldian, etengabe ari gara entzuten, hezkuntza sistemak eraldaketa sakona behar duela, oraingo eskemak ez diolako gaur egungo errealitateari behar bezala erantzuten. Hezkuntza munduan urteak daramatzagunok entzun ditugu, lehendik ere, antzeko planteamenduak, eta badugu kezka oraingo hau ez ote den haizeak eramango duen beste bat gehiago izango.

Egia da hezkuntza-sistema etengabeko aldaketa prozesuan dagoela, baina, geure buruarekin zintzoak baldin bagara, onartu behar dugu azken hamarkadetan egindako aldaketa asko ez direla behar adina esanguratsuak izan eta ez dutela, funtsean, gure hezkuntzaren ikuspegia aldatu. Oraingo honetan, ordea, ez dugu aldaketa hutsala proposatzen, sakoneko eraldaketa baterantz abiatu nahi dugu; ongi egiten dakiguna baliatuz, hezkuntza jardunaren erdigunean ikaslea jarri eta ikastolak egungo errealitateari hobeto erantzun diezaion. Baina zergatik?

Zergatik Hezkuntza Marko Orokor berria?

Begira dezagun, une batez, gure ikastolatik kanpora... gure mundua, hurbilekoa eta urrunekoa, etengabe eta izugarritzko abiaduran ari da aldatzen. Atzera 15-20 urte egiteko tarte hartuko bagenu, orduko mundua ez dakigu ezagutu ere egingo genukeen. Nor ausart daiteke, beraz, mundua 20 urte barru nolakoa izango den esatera?

Azken bi hamarkadetan teknologiak izan duen garapenari begiratzea besterik ez dugu. Azken hamabost urteetan sortu dira gure komunikatzeko moduak goitik behera aldatu dituzten smartphone eta aplikazioak, eta garai beretsuan hasi dira garatzen oraindik zehazki zer diren eta nola eragingo diguten ez dakigun bigdata, adimen artifiziala eta antzekoak.

Baina aldaketa ez da bakarrik teknologikoa, ezin dugu pentsatu tresnak baino ez direla aldatu; akats handia litzateke.

Komunikatzeko tresna berriek, besteak beste, pertsonen arteko harreman-moduak aldatu eta indibidualistagoak egin gaituzte; informazioaren demokratizazioak desinformazioa ekarri du; gizarte baten oinarri sendo behar luketen balioak gero eta likidoagoak dira...

Eta bitartean, eskolak XIX. mendeko logika eta helburuekin jarraitu du. Aldaketak aldaketa, kulturaren transmisioan oinarritutako eskemarekin jarraitzen dugu hein handi batean: ordutegi eta ikasgaien banaketa zurrunarekin, bakarkako probetan oinarritutako ebaluazioarekin; ikasle guztiak, bakoitzari behar duena emanez, "toki" berera eramateko helburuarekin...

Errealitatea eta eskolaren arteko desfase honek ondorio nabarmen bat dakar: motz gelditzen ari gara ikasleei errealitate berrirako tresnak emateko garaian. Ezagutzen ez dugun mundu batean bizitzeko eta mundu hori hobetzeko gai izan daitezen, orain artekoez gain, beste trebetasun batzuk lantzeko aukerak eskaini behar dizkiegu.

Zertarako Hezkuntza Marko Orokor berria?

Gure buruari jarri diogun misioa hobeto betetzeko eraldatu behar dugu. Eta honakoa da ikastola osatzen dugun komunitateko kideon misioa:

“Pertsonak heztea, datorren munduan euren bizitza proiektua modu koherentean eta giza eskubideetan oinarrituta egin dezaten, eta mundu hori, ingurune hurbiletik hasi eta urrunekoraino hausnar, birformula eta hobe dezaten”.

Garbi dago misio honi behar bezala erantzuteko, gure hezkuntza sistemak oro har, eta gure ikastolak konkretuki, eraldaketa behar duela. Labur esateko, kulturaren transmisioa bermatzeaz gain, pertsonak erdigunean jarri behar ditugu, gure helburu nagusia pertsonaren garapen integrala izan dadin.

Eta pertsonak erdigunean jartzen baditugu, ezinbestekoa da definitzea ikastolatik ateratzen diren unean, gure ikasleak nolakoak izatea nahi dugun. Ezinbestekoa da definitzea nolako pertsonak hezi behar ditugun, ezagutzen ez dugun mundu horretan bizi eta mundu hori hobe dezaten.

Horixe da, hain zuzen, Ikastolako komunitateak definitu dugun pertsona-eredua.

Pertsona- eredua

02

Pertsona-ereduaren definizioa

Jakin badakigu, *pertsona-eredua* kontzeptuak eta izenak berak, zalantzak eta iritzi kontrajarriak sortzen dituela. Horregatik, lehenik eta behin, Santo Tomas Lizeoak pertsona-eredua nola ulertzen duen definitzen saiatuko gara.

Zer da pertsona-eredua?

Pertsona-eredua ezaugarri bilduma da, ikasleari munduan eta Euskal Herrian bizi beharko dituen erronkei aurre egiteko gaitasuna garatzen lagunduko diona. Beraz, ikastolako kideok aukeratu ditugun balioen arabera, norbere burua garatzeko bide posibleak dira. Zentzu honetan, pertsona-ereduaren ezaugarriak ez dira ikasleentzat soilik baliagarriak; pertsona guztiontzako aukerak, baizik.

Pertsona-eredua horrela ulertuta, ispilu bat da; ez da, beraz, posible izango ikasle guztiek eta beti betetzea. Baina ikastolaren betebeharra izango da pertsona-ereduaren ezaugarriak garatu ahal izateko esperientziak eta aukerak ikasle guztiei eskaintzea.

Zer ez da pertsona-eredua?

Aurrez emandako definizioa osatzeko, interesgarria iruditzen zaigu pertsona-eredua zer ez den azaltzen duten bi ideia argitzea.

- Pertsona-eredua ez da molde bereko pertsona uniformeak egiteko tresna bat. Esan bezala, pertsona-eredua norbera garatzeko bide posibleak jasotzen dituen ispilua da; ikasle bakoitzak, beraz, ibilbide propioa egingo du aukera horien guztien artean.

Are gehiago, pertsona-ereduaren ezaugarrien artean ageri dira, hain zuzen ere, "uniformizatua" ez izateko "tresnak".
- Pertsona-eredua ez da lan merkatuaren eskakizunei erantzuteko pertsonak hezteko tresna bat. Lan merkatuan aritzea pertsona baten bizitzaren zatia den neurrian, pertsona-ereduko ezaugarri batzuk lan merkatuaren eskakizunei erantzuteko egokiak dira, noski. Baina ezaugarriok askoz haratago doaz, bizitza osorako tresnak eskaintzen dizkiete ikasleari.

Etorkizuneko testuingurua

Bizitza egokituko zaion munduan bizi eta mundua hobetuko duen persona-eredua definitzeko ezinbestekoa da, noski, etorkizuna nolakoa izan daitekeen irudikatzeko ariketa egitea.

"Ezinbestekoa izango dugu, bestek beste, barne sendotasun handiko eta bizitza osoan ikasteko gaitasuna dugun pertsonak izatea."

Bizitza egokituko zaion munduan bizi eta mundua hobetuko duen pertsona-eredua definitzeko ezinbestekoa da, noski, etorkizuna nolakoa izan daitekeen irudikatzeko ariketa egitea. Ariketa hori hainbat autorek egin dute, bai gure inguruan eta bai mundu mailan ere. Ez da asmoa, marko honetan, gaiaren inguruko hausnarketa sakon bat jasotzea, baina gako batzuk azaltzen saiatuko gara.

Testuinguru globala

Ziurgabetasunez beteriko mundu honetan, erantzunak baino galdera gehiago sortzen diren arren, ausartu gaitzke etorkizunean, eta modu integral batean, landu beharko ditugun erronka nagusiak zein diren zehaztera:

- **Erronka sozioekonomikoa:** inoizko desoreka sozioekonomiko handiena duen munduari erantzun behar diogu.
- **Erronka ekologikoa:** klima-aldaketaren eraginak, besteak beste, planetaren bioaniztasuna bera arriskuan jartzen du.
- **Erronka energetikoa:** zibilizazio industrialak ahalbidetu zuen erregai fosil merkeen aroaren bukaeran gaude.
- **Erronka demografikoa:** munduko populazioaren hazkunde ez homogeenak sortutako migrazioaren erronkari erantzun behar diogu.
- **Hizkuntza- eta kultura-aniztasunaren erronka:** inoiz baino hizkuntza-komunitate gehiago ari dira desagertzen.

Hain zuzen ere, erronka nagusi hauei erantzuteko onartu zuen Nazio Batuen Erakundeak 2030 Agenda. Agenda honek garapen iraunkorrerako 17 helburu definitzen ditu, guztiok helburu horien bidean lan egitera deituak.

Norbanakoari lotutako testuingurua

Behin eta berriz aipatu dugun ziurgabetasunak, maila globalean ezezik, maila pertsonalean ere erronka handiak ekarriko ditu.

- Bigdata delakoak, edo, hobeto esanda, hura kontrolatzen duenak pertsonen kontsumo-joeretan, bizitza-ohituretan eta abar eragin ahal izango du.
- Sare sozialen garaian, gero eta saretuago dagoen munduan, pertsona gero eta bakartiagoak izango ditugu. Are gehiago, sare sozialen atzean dauden interes ekonomikoek pertsona manipulagarriagoak sortuko dituzte.
- Lan merkatuan ere aldaketa nabarmenak izango dira:
 - Adimen artifizialak pertsonak ordezkatu eta aholkatuko ditu.
 - Lanpostu kualifikatuen eskaera egongo da eta profesional batek, gutxi gorabehera, hamar urtean behin lanpostua aldatuko duela kalkulatu da.

Ondorioz, lan merkatuak T itxurako profesionalak eskatuko ditu, hau da, diziplina batean adituak direnak eta ezagutza horretatik haratago, gaitasun pertsonalak (komunikazioa, sormena, malgutasuna, kritikotasuna...) martxan jartzen dituztenak, beste diziplinetako profesionalekin elkarlanean aritu ahal izateko.

Testuinguru honetan, beraz, ezinbestekoa izango dugu, besteak beste, barne sendotasun handiko eta bizitza osoan ikasteko gaitasuna dugun pertsonak izatea.

Pertsona-ereduaren elementuak

Pertsona-eredua, aurrez esan bezala, datozkigun erronkei erantzuteko gaitasuna lantzeko pertsonari norabideak eskaintzen dizkion ezaugarri multzoa da, ikastolako komunitateak adostutako balioetan oinarritutako ispilua, beraz.

“Pertsona-eredua xehetu egin behar da, egunerokoan lagungarri izango den tresna bihurtu arte.”

Pertsona-eredua, aurrez esan bezala, datozkigun erronkei erantzuteko gaitasuna lantzeko pertsonari norabideak eskaintzen dizkion ezaugarri multzoa da, ikastolako komunitateak adostutako balioetan oinarritutako ispilua, beraz.

Halaber, gure hezkuntza-prozesuaren iparra ere bada pertsona-eredua, gure jarduna bideratuko duena eta, horretarako, adostutako pertsona-eredua xehetu egin behar da, egunerokoan lagungarri izango den tresna bihurtu arte.

Pertsona-eredua, hortaz, 3 maila ezberdinetan xehetu dugu: bereizgarriak, ezaugarriak eta inpaktuak. Labur bada ere, hiru horiek azaltzen saiatuko gara.

Bereizgarriak

Gure pertsona-eredua definitzen duten balioak dira, norberaren izateko eta besteekin harremana izateko moduak finkatzen dituztenak.

Ezaugarriak

Ezaugarriek bereizgarriak ulertzen laguntzen digute, hau da, bereizgarri bakoitza definitzeko balio digute.

Inpaktuak

Inpaktuak, ezaugarri bakoitzean, ikaslearengan nola edo zertan eragin nahi dugun zehazten dutenak dira. 3 inpaktu mota bereizten ditugu:

- **Jokabide- edo portaera-mailako inpaktuak:** Ezaugarri bati dagokionez, pertsona baten jokabidea aldatzen dugunean, ematen dira.
- **Ulermen-mailako inpaktuak:** pertsona batek jokabidea aldatzeaz gain, aldaketa horren beharra ulertu eta kontzientzia hartzen duenean gertatzen dira.
- **Marko mentalaren mailako inpaktuak:** pertsonak, prozesu baten ondorioz, bere jokatzeko eta ulertzeko moduak aldatu eta aldaketa hauek bizitza ulertzeko moduan kokatzen direnean gertatzen dira. Hirugarren maila honetara iristean, pertsonak, testuingurua aldatuta ere, jokabide bera mantentzen du.

Azken zehaztapen maila hau da gure hezkuntza-prozesuaren diseinua eta garapena egiteko tresna lagungarriena. Ikasleei eskaini behar dizkiegun ikas-esperientziak eta egin behar ditugun esku hartzeak inpaktu hauek lortzeko bideratu behar ditugu, pertsona-eredurantz bideratzeko ahaleginean.

Inpaktuek ere garrantzi handia dute ikasle bakoitzak pertsona-ereduaren arabera duen garapenean, euren baitan ikusi ahal izango baitugu ikasleak zer bide jorra ditzakeen aurrera egiteko.

Santo Tomas Lizeoko pertsona-eredua

Santo Tomas Lizeoko komunitateak definitutako pertsona-eredua, hitz gutxitan, honela defini dezakegu: Santo Tomas Lizeoko ikaslea, bere burua, gainontzekoak eta mundua euskaratik eta euskalduntasunetik ulertzen dituen pertsona da.

“Santo Tomas Lizeoko pertsonak, euskaldunak, nortasun sendoa dutenak, besteei eta mundura irekiak eta mundua hobetuko dutenak izatea nahi dugu.”

Pertsona-ereduaren kontakizuna

Santo Tomas Lizeoko ikaslea bere burua, gainontzekoak eta mundua euskaratik eta euskalduntasunetik ulertzen dituen pertsona da.

Bere buruaren ezagutzatik, nortasun sendoa du eta sendotasun horretatik besteenganako jarrera eraikitzailea dauka eta mundura irekia bizi da.

Gainera, munduan bizitzeaz haratago, kritikotasunetik, mundua hobetzeko konpromisoa hartua du.

Definizio honek, noski, zehaztapen handiagoa behar du eta, horretarako, 5 bereizgarri eta 15 ezaugarriren bidez xehetu dugu. Hurrengo bi ataletan, bereizgarriok, ezaugarriok eta euren definizioak jaso ditugu.

Santo Tomas Lizeoko komunitateak definitutako pertsona-eredua, hitz gutxitan, honela defini dezakegu:

Pertsona-ereduaren bereizgarriak eta ezaugarriak



Oharrak:

Ezaugarriak bost bereizgarritan banatu ditugu, pertsona-eredua garatzeko orduan lagungarria baita sailkapena. Jakin badakigu, hala ere, sailkapena arbitrarioa dela, eta ezaugarri asko bereizgarri ezberdinetan koka daitezkeela.

Bestetik, garrantzitsua da ohartzea, ezaugarrien artean ez dagoela inolako hierarkiarik, eta ezaugarri batek zentzua hartzen duela, bakarrik, gainontzeko ezaugarriekin batera.



Nortasun sendoa duena

- Autonomoa
- Konfiantza duena
- Bere burua ezagutzen eta zaintzen duena



Besteei begira bizi dena

- Enpatikoa
- Komunikatzaile asertiboa
- Kooperatiboa



Euskalduna

- Euskal hiztun osoa
- Euskal identitatea duena



Mundua hobetzeko konpromisoa duena

- Kritikoa
- Konprometitua
- Sortzailea eta ekintzailea



Mundura irekia bizi dena

- Jakinmina duena
- Eleaniztuna
- Moldagarria

Ezaugarrien definizioak

Nortasun sendoa duena

Autonomoa

Bizitzaren esparru desberdinak modu kontzientean planifikatzen, aurrera eramaten, ebaluatzen eta erregulatzen dituen pertsona da eta kudeaketa horretatik abiatuta, bere bizitza proiektua eraikitzeko bide propioa egiten du.

Konfiantza duena

Konfiantza du bere buruarengan eta besteengan, eta akatsak ikasteko bide gisa ikusten ditu, eta, barne konfiantza horretatik, aurre egiten die bere ardurapeko erronkei.

Era berean, besteen gaitasunak ikusten eta balioesten ditu eta aurrera eramane behar dituen eginkizun eta erronketarako besteekin kontatuz dezakeela sentitzen du.

Bere burua ezagutzen eta zaintzen duena

Bizitzaren egoera ezberdinetan, bere sentimenduez, pentsamenduez eta ekintzez gogoeta egiten du eta bere buruari on egiten dioten erabakiak hartzen ditu, pertsona orekatua eta zoriontsua izateko.



Besteei begira bizi dena

Enpatikoa

Besteen lekuan jartzeko gai da eta besteen pentsamendu eta sentimenduak balioesten ditu. Aktiboki entzuten du, eta besteak epaitu eta errudunik bilatu gabe, konponketan jartzen du begirada.

Komunikatzaile asertiboa

Modu sinesgarri, errespetuzko eta eraginkorrean ematen ditu ezagutzera bere pentsamendu, ideia eta emozioak, zenbait komunikazio tresna eta lengoia erabiliz eta testuingurua eta hartzaila kontuan hartuta.

Kooperatiboa

Bizitzaren egoera ezberdinetan, ingurukoekin koordinatzen eta jarduten den pertsona da. Partekatutako helburuak lortzeko lankidetzaz ezinbestekotzat jotzen du, taldearen ongizatea bilatzen du.



Euskalduna

Euskal Hiztun osoa

Bere bizitzako egoera ezberdinetan, euskararen erabileraren aldeko hautu kontzientea egiten du eta, horretarako, egoera ezberdinek eskatzen dituzten errejistroak menderatzen ditu.

Bere inguruan euskararen eremuak zabaltzeko konpromisoa hartzen du.

Euskal identitatea duena

Euskal identitatearen eta kulturaren bereizgarriak eta ezaugarriak ezagutzen ditu (historia, ohiturak...) eta horiek zabaltzeko jarrera eta konpromisoa du.

Euskal identitate soziala badela eta horren baitan askotariko identitate euskaldunak eraiki daitezkeela defendatzen du, eta horrekin guztiarekin bere sintesi propioa sortzen du.



Mundua hobetzeko konpromisoa duena

Kritikoa

Inguruko errealitatea (mundu erreala nahiz digitala) ulertu eta aztertu ondoren, oinarritzko giza eskubideetan oinarrituz, erabakiak hartu, doikuntzak proposatu eta ideia propioak garatzen ditu.

Konprometitua

Norbanakoaren, gizartearen edo ingurumenaren arazo, beharrian edo erronkez jabetzen da eta horiekiko konpromisoa agertzen du, ekarpen aktiboa eginez, hartutako konpromezuak betez eta erantzukizunez jokatu.

Sortzailea eta ekintzailea

Bizitzaren esparru ezberdinetako erronka berriei ideia propio eta originalen bitartez erantzuten die eta sortutako erantzunak eraginkortasunez aurrera eramaten ditu.



Mundura irekia bizi dena

Jakinmina duena

Errealitatea ulertzeko eta etengabe ikasten jarraitzeko, galderak sortzen zaizkio eta galdera horiei erantzun ahal izateko, informazioa bilatzeko prozesuetan aktiboki inplikatzeko da.

Eleaniztuna

Euskara ardatz izanik, Euskal Herrian bizi diren hizkuntzekiko begirunezko jarrera inklusiboa du eta, oro har, hizkuntza eta kultura aniztasuna balioesten ditu.

Beharrezkoak dituen egoeretanegoerak eskatzen dion errejistroan, gazteleraz, hitz egiten du eta ingelesa behar adina menderatzen du.

Moldagarria

Egokitzen zaizkion egoera zailen aurrean, errealitatea onartu egiten du, eta hortik indarra ateratzen du, egoera eta pertsona bakoitzari erantzun neurrizko eta egokia emateko.



Ezaugarrien definizioak etapaz etapa

Ezaugarri bakoitzaren inpaktuak ere definitu ditugu etapaz etapa, baina dokumentu honetan luzeegi emango zuketela irudituta, jarraian ageri den QR kodearen bidez iritsiko zaren dokumentuan jaso ditugu.



Oinarri Pedagogikoak

03

Nolako ikastola nahi dugu?

Eta pertsona-eredu hori lantzeko, nolako ikastola behar dugu? Galdera hori egin genion geure buruari eta komunitateko kideon artean erantzun.

“Nolako ikastola nahi dugu? galderari, komunitateko kide guztion artean erantzun diogu.”

Nolako ikastola nahi dugu?

Inolako mugarik gabe aritzen saiatu ginen eta, nolabait, gure ikastola ideala "irudikatu" genuen. Errealitateak, noski, geure tokian jartzen gaitu, baina denon artean sortutako amets horrek gure iparra izan behar du eta etorkizunean hartu beharko ditugun erabakiak hartzen lagundu behar digu.



Edukiak, metodologia eta balioak

- Metodologia aktiboak
- Pertsonalizatua



Ikasleak eta hezitzaileak

- Pertsona-ereduaren ezaugarriak ipar dituen
- Banakako atentzioa ematen diona ikasle bakoitzari
- Bidelaguna dena
- Lankidetzan arituko dena
- Etengabe formatuko dena



Hezkuntza espazioak

- Ikasgela irekiak eta malguak
- Ikasgela espezializatuak
- Denok partekatze espazio komunak
- Norbera ezagutzeko eta autonomia lantzeko espazioak
- Kanpo espazio eta aniztasuna sustatzen dutenak



Denbora eta antolaketa

- Ikasleen beharrei erantzungo dien antolaketa duena
- Komunitateko kideen arteko lankidetzaz ahalbidetuko duena
- Gelatik irtetea ahalbidetuko duena



Baliabideak eta teknologia

- Ikasleek teknologiaren erabilera arduratsua egin dezaten ahalbidetuko duena
- Teknologia ikastolako bizitza hobetzeko tresna bezala erabiltzen duena



Familiak eta ingurua

- Familiak hurbil dituen
- Ingurura zabalduko den ikastola
- Aisialdirako aukera partekatutak eskaintzen dituen

Edukiak, metodologia eta balioak

Ikastolak bere hezkuntza-eredu propioa garatuko du, komunitateko kide guztien artean (hezitzaile, familia eta ikasle) adostua eta partekatua, ikastolaren parte garen guztientzat "lanerako" marko bat zehaztuko duena.

Hezkuntza-eredu propio honek bi ardatz izango ditu: euskara eta euskal identitatea eta pertsona-eredua.

Aipatutako bi ardatzak kontuan hartuta, bi zutabe nagusi izango ditu oinarri: ikaslea subjektu egingo duten metodologia aktiboak eta pertsonalizazioa, ikasle bakoitzaren beharretara egokituko baita.



Bi zutabe nagusi hauetatik eratorriko dira gure hezkuntza ereduaren ezaugarri nagusiak:

→ Metodologia aktiboak

Metodologia "tradizionalagoak" guztiz baztertu gabe, ikaslea protagonista bihurtzen duten proiektuak, erronkak, ikerketak eta antzekoak izango dira gure ereduaren oinarri.

Hezitzailearen lana, beraz, ikaslearen bidelagun izatea izango da, elkarrekintzan eta ardurak partekatuz, ikasleari "aurrera egiteko" aukerak eta bizipenak eskainiko baitizkio.

Diseinatuko ditugun proiektu eta erronkak esperientzia errealean oinarrituko dira, balioen lanketari garrantzia emango diote eta eguneroko gaiekin lotura izango dute (sare sozialak, teknologiaren erabilera arduratsua, demografia, globalizazioa, adimen artifiziala, etorkinak...) eta, beraz, gelatik ateratzera behartuko gaituzte (jangela, kirola, beste erakundeak, auzoa, komunitatea, natura...).

Metodologia aktiboen bidez, ikasleei bizitzarako behar dituzten ezaugarriak garatzeko eta mundua hobetzen hasteko ikas-egoerak eskainiko dizkiegu.

→ Pertsonalizatua

Ikaslea erdigunean jartzeak, ezinbestean eramango gaitu ikasle bakoitzaren errealitatea kontuan hartzera eta gure eredu ikasleen beharretara egokitzen.

Ikasleak pertsona-ereduko ezaugarriak gara ditzan, bakoitzaren errealitatea eta erritmoa kontuan hartzea ezinbestekoa izango da, alegia, sortzen ditugun ikas-egoerak ikasleei moldatzea, eta ez alderantziz.

Norabide honetan, garrantzi handia hartuko du, nahi eta nahi ez, ikasleen ongizate emozionala zaintzeak.

Ikasleak eta hezitzaileak

Santo Tomas Lizeoko hezitzaileak lagundu egingo dio ikasleari ikastolak definitu duen pertsona-eredura bideratzen.

Horretarako, noski, hezitzaileak berak pertsona-ereduan zehaztutako ezaugarriak ipar izango ditu, eta ikasle bakoitzaren bidelagun izateko komunitatearekin lankidetzan arituko da eta etengabeko formakuntza jasoko du.



→ **Pertsona-ereduaren ezaugarriak ipar dituen**

Hezitzaileak ingurune seguru, atsegin, konfiantzazko eta esanguratsu bat eskainiko dio ikasleari. Horretarako, ezinbestekoa izango da, besteak beste, pertsona enpatikoa, errespetuzkoa, konprometitua eta jakinmina duena izatea.

Hezitzailea, beraz, eredu izango da ikasleentzat eta liderraren papera bete behar du, autoritarioa izan gabe, autoritatea izango duena (bizikidetzaren arauak eta mugak jarriaz).

→ **Banakako atentzioa ematen diona ikasle bakoitzari**

Hezitzaileak ikasleen aniztasuna balioetsiko du, ikasle bakoitza mundu bat dela onartuz, eta euren gaitasunak indartzen eta ahulguneak lantzen saiatuko da.

Ikasleak ezagutzeko, beharrezkoa den denbora indibidualizatua eskaintzeko tutoretza sistema indartuko da, honi ordu lektibo gehiago eskainiz eta familia-tutorearen figura indartuz, adibidez.

→ **Bidelaguna dena**

Ikaslea bere ikasketa prozesuaren jabe denez, hezitzailea bidelagun izango du. Ez du, beraz, irakasle orojakilearen papera jokatu.

Norabide horretan, garrantzitsua izango da hezitzaileak bere bokazioarekin konektatzea, bere lanarekiko pasioaren bidez eta komunikazio on baten bidez, ikaslearen jakinmina pizteko.

→ **Lankidetzan arituko dena**

Ikasle bakoitzaren heziketa-prozesua komunitate osoaren lana dela sinetsita, hezitzailea beste hezitzaileekin, familiekin eta ikasleekin lankidetzan arituko da eta lankidetzaren hori bultzatuko du.

→ **Etengabe formatuko dena**

Ikastolak hezitzaileen lanaren autoebaluazioa eta ebaluazioa indartuko ditu eta ebaluazio horretatik etengabeko formakuntzarako bideak eskainiko ditu, hezitzaileen lanaren etengabeko hobekuntza sustatzeko.

Hezkuntza espazioak

Ikastolako espazioek bat egin behar dute gure helburuarekin, hau da, espazioak egokiak izango dira ikasleei pertsona-eredua "lortzen" laguntzeko. Ikastolako espazio guztiak, barne nahiz kanpo espazioak, ikasgela eta bestelakoak, hezkuntza espaziotzat hartuko dira.

Garrantzitsua da, oro har, espazio lasai eta seguruak izatea, ikasle guztien ikasketa-prozesu positiboan laguntzeko.

Norabide horretan, espazioek ezaugarri ezberdinak eduki behar dituzte eta ezaugarri ezberdinetako espazioak behar ditugu.



→ Ikasgela irekiak eta malguak

Metodologia ezberdinetara (bakarkako lana, taldekakoa, metodologia aktiboak...) moldatuko diren ikasgela malguak izango dira: ikasgela irekiak, ikastalde ezberdinak jaso ahal izango dituztenak, momentuko beharren arabera.

→ Ikasgela espezializatuak

Behar espezifikoak dituzten arloek (behar materialak, espazioak...) behar horiek egoki beteko dituzten espazioak izango dituzte.

→ Denok partekatzeko espazio komunak

Ikasleek eta hezitzaileek erabiliko dituzten espazio komunak izango dira, adin ezberdinetako ikasleak eta hezitzaileak batera aritzeko edo, behintzat, espazio berean aritzeko. Auzoak edo familiek izan ditzaketen beharrei erantzuten dieten neurrian, erabilera irekia izango dute.

Batez ere sormenarekin lotutako espazioak izan daitezke: liburutegia, musika gela, plastika gela, ikus-entzunezko gela...

→ Norbera ezagutzeko eta autonomia lantzeko espazioak

Ikasleek modu autonomoan erabil ditzaketen espazioak dira: ikasteko gela, lasai egoteko gela, hezitzaileerik gabeko gela...

→ Ardura eta konpromisoa lantzeko espazioak

Espazio guztiak dira egokiak ikasleen ardura lantzeko, baina zerbitzu gisa jasotzen diren zenbait jardueratan ikasleen inplikazioa bila daiteke, hala nola, jangela komunitarioa garatuz edo komunen garbitasunean inplikatur.

→ Kanpo espazio berdeak eta aniztasuna sustatzen dutenak

Kanpoko espazioei dagokienez, zuhaitzak, baratzak, animaliak... dituzten espazioak nahi ditugu, naturarekiko konexioa handitzeko.

Bestetik, ikasleen aniztasunari erantzungo dioten espazioak izango dira, ikasleen hautu ezberdinetarako aukerak eskainiko dituztenak.

Denbora eta antolaketa

Ikastolaren antolaketa (denboraren banaketa, ikastaldearen antolaketa eta abar) malgua eta moldagarria izango da, ikaslearen ikasketa prozesua ahalik eta arrakastatsuenan izan dadin egokituz.

Proiektuak eta zirkulazio autonomoa bezalako hautu-pedagogikoak eginez, ikaslea subjektu aktiboa izango da eta, beraz, ikasleak bere denboraren eta bere antolaketaren gaineko ardurak hartuko ditu.

Aipatutako helburu nagusi horretaz gain, denbora eta antolaketaren inguruko erabakiek ezaugarri hauek hartuko dituzte kontuan.

→ Ikasleen beharrei erantzuneko dien antolaketa duena

Antolaketa beti egongo da ikaslearen zerbitzura eta, beraz, behar dutenei laguntzea eta talentua sustatzea izango ditu helburu.

Honetaz gain, antolaketak kontuan hartuko ditu kronobiologia bezalako ezagutzak eta ardura berezia jarriko du egunaren hasierako eta bukaerako momentuetan.

Ikasleekin elkarrekintzan aritzeko denboraz gain, ezinbestekoa izango da hezitzaileek (eta familiek) hausnarketarako, inertziak hausteko eta hobekuntzak programatzeko denborak edukitzea.

→ Komunitateko kideen arteko lankidetzaren ahalbidetuko duena

Ikasle bakoitzaren ikasketa-prozesua komunitate osoak partekatzen duen ardura gisa onartuta, guztiok inplikatu gara guztion prozesuan: maila ezberdinetako ikasleak elkarrekin arituz, ikasleen arteko tutorizazioak eginez, familien inplikazioa handituz...

Pertsona-ereduaren garapenean aisiak eta kirolak duten garrantzia kontuan hartuz, familia eta ikastolaren artean diseinatutako programak eramango ditu aurrera.

Lankidetzaren honen izaeraren oinarria ikastolaren kooperatiba izaera da, eta izaera hau sendotzea ezinbestekoa da komunitateko kide guztiak proiektu baten parte senti gaitzen.

→ Gelatik irtetea ahalbidetuko duena

Errealitate ezberdinak ezagutzeko eta hiria hezkuntza-espazio ezin hobe izanik, ikastolaren antolaketak ikastolatik bertatik irtetea erraztuko du.



Baliabideak eta teknologia

Teknologiaren presentzia gero eta handiagoa izanik, bi ardatz nagusi dira kontuan hartuko ditugunak: ikasleak teknologiaren erabilera arduratsua egiten ikastea eta teknologia ikastolaren bizitza hobetzeko tresna gisa erabiltzea.



→ Ikasleek teknologiaren erabilera arduratsua egiten dutena

Ikasleekin teknologiaren erabilera arduratsua lantzeko, ezinbestekoa da komunitate osoak jarrera bateratu bat izatea, ikasleek mezu eta eredu bateratuak jaso ditzaten. Norabide horretan, hezitzaile eta familien arteko lankidetzak ezinbestekoa izango da, guraso taldeak bultzatuz, formakuntza saioak antolatuz edo erabileraren dekalogo adostu bat sortuz, adibidez.

Lankidetzak horrek kontuan hartu behar ditu honako aspektu hauek: eskuzko lanketa egitea, teknologia gabeko espazioak sortzea, naturaz gozatzea indartzea, aurrez aurreko harremanak sustatzea, kontzentrazioa lantzea, teknologiaren erabilera mailakatzea eta abar.

→ Teknologia ikastolako bizitza hobetzeko tresna bezala erabiltzen duena

Teknologiak dituen aukerak eta tresnak baliatuko ditugu ikastolaren komunikazioa eta ikasleen heziketa prozesua hobetzeko. Zaila da jakitea teknologiak zer tresna eskainiko dizkigun hurrengo urteetan, baina, gutxienez, eremu hauetan erabilgarria izango dela aurreikus dezakegu: familia, ikasle eta ikastolaren arteko komunikazioa eta lankidetzak sendotzeko; ikasleekin sormena, lankidetzak eta komunikazioa lantzeko; eta online heziketarako.

Teknologiaren garapenaren abiadura kontuan hartuta, ezinbestekoa izango da, halaber, ikastola eguneratuta egotea, bai teknikoki eta bai formakuntzaren aldetik.

Familiak eta ingurua

Ikastolak familiekin eta inguruarekin eduki behar duen harremanari dagokionez, hiru ardatz nagusi finkatu dira: familiak ikastolara hurbiltzea, ikastola ingurura zabaltzea eta aisialdirako aukera partekatutak eskaintzea.



→ Familiak hurbil dituena

Ikasleen heziketa prozesuari dagokionez, ezinbestekoa izango da familiak eta ikastola auzolanean aritzea, konfiantzazko harreman estuan oinarrituta, ardurak partekatuz eta zabaldu beharreko mezuak adostuz.

Jardun lektiboan ere, familien parte-hartzea aberasgarria izango da, euren ezagutzak partekatuz eta proiektuen diseinuan eta implementazioan parte hartuz, adibidez.

Bestalde, ikastolaren kooperatiba-izaera sendotuz, familiek presentzia eta inplikazio handiagoa izan behar dute ikastolaren erabakietan eta ardura guneeetan. Horretarako, familia talde egonkorak sortuko dira (guraso-elkartea, guraso-ordezkarriak, kontseilu pedagogiko zabaldua, focus group...) eta gurasoiei euren ekarpenak egiteko eta eurengandik informazioa jasotzeko bideak indartuko dira.

→ Ingurura zabalduko den ikastola

Ikastolak hiria, ingurua baliabide pedagogiko bezala ikusiko ditu, ikasleak bizi diren burbuilatik atera eta gizarteko aniztasuna ezagutu dezaten. Lanketa honetan, garrantzitsua izango da inguruko erakundeekin lankidetzan aritzea, izan unibertsitatearekin, kultur etxe sarearekin, udalarekin eta abar. Lankidetzan honetan, garrantzitsuak izango dira beste eskolak, bai ingurukoak eta bai nazioartekoak, elkartrukeen bidez ikasleen hezkuntza prozesua aberasteko.

→ Aisialdirako aukera partekatutak eskaintzen dituena

Komunitateko kideen arteko loturak sendotzeko, naturarekin, kulturarekin edo euskararekin lotutako aisialdiko esperientziak eskainiko dira elkarlanean, ikastolaren esperientzia eta egitura baliatuz eta familien parte-hartze aktiboarekin.

Printzipio psiko- pedagogikoak

Ikasleekin zer landu nahi dugun definitu ondoren, hau da, pertsona-eredua eta nolako ikastola nahi dugun zehaztu ondoren, landu nahi dugun hori nola landu nahi dugun definitzea dagokigu.

“Printzipio psikopedagogikoak hezkuntza-ildoak sustengatzen dituzten oinarri zientifikoak dira.”

Printzipio psiko-pedagogikoak

Oinarrizko hezkuntza-ildoak zehaztu aurretik, horien sustengu eta arrazoi diren printzipio psikopedagogikoei begiratu bat emango diegu. Izan ere, ezinbestekoa iruditzen zaigu gure jarduna oinarrituko duten hezkuntza-ildoen atzean dauden oinarri zientifikoak azaltzea.

Pedagogiari lotuta, zientziak aurrerapauso ugari eman ditu azken urteetan, oso barneratuta genituen uste edo intuizioak berretsiz batzuetan, baina uste horiek ukatuz beste batzuetan.


Hurrengo lerroetan xehetuko ditugun printzipio psikopedagogikoak dira, beraz, aurrerago azalduko ditugun oinarrizko hezkuntza-ildoen zutabe zientifikoak, ildo horiek justifikatzen dituztenak, alegia. Ez dugu entsegu zientifiko bat idatzi, ez da hori gure asmoa; printzipiook ikastolako komunitate osoak ulertzeko moduan adierazten saiatu gara, modu sinplean.

Printzipio psikopedagogikoak hiru multzotan sailkatu ditugu:



Pertsonak ikusteko moduari lotutako printzipioak

- Ikasleak baino gehiago, ikastera datozen pertsonak ditugu.
- Ikasketa prozesu egokia izan dadin, oreka emozionala eta autoirudi doitua ezibestekoak dira.



Testuinguruari lotutako printzipioak

- Pertsona guztiek dugu ikasteko gaitasuna, testuinguru berean elkarrekin lan eginez.
- Elkarlanean ezinbesteko tresna da hizkuntza, ongi pentsatu eta komunikatzeko.
- Espazio eta denboren antolaketa ikasketa-prozesu arrakastatsuak errazteko bitartekoak dira.



Ikasketa-prozesuari lotutako printzipioak

- Ezagutza berriak pertsonaren garapeneremu hurbilean eta lehendik dakigunarekin konektatuta eraikitzen dira.
- Ezinbestekoa da ikaslearen arrakasta bermatzeko baldintzak eraikitzea.
- Akatsa ikasketarako tresna paregabea da.
- Hezitzaileok modelatze lana egin behar dugu, ikaslearentzat eredu izanik.
- Feedback-a ikaslearen ikasketa-prozesua erregulatzeko ezinbesteko tresna da.

Pertsona ikusteko moduari dagozkion printzipioak

Santo Tomas Lizeoan, ikasleak baino gehiago, ikastera datozen pertsonak ditugu. Ezer esaten ez duela dirudien esaldi honek erabat baldintzatzen du ikasle bakoitzaren ikasketa-prozesua eta, batez ere, ikasketa-prozesu hori begiratzeko, ulertzeko eta bertan esku-hartzeko modua.

Begirada honek ikasleen jokamoldeak ulertzen laguntzen du eta ikasketa-prozesu desegoki baten aurrean, sintometatik haratago joan, benetako arrazoiak aurkitu eta esku-hartze eraginkorrak egiteko aukera ematen du, besteak beste.

Eta ikaslea bere osotasunean, pertsonaren dimentsio guztietatik begiratze horrek hurrengo printzipiora garamatza: ikasleak ikasketa-prozesu egoki bat bizi dezan, ezinbestekoak dira oreka emozionala eta autoirudi doitua.

Ikasketa-prozesu oro, gehiago ala gutxiago, erronka bat da eta ikasleak erronka horri aurre egiteko motibazioz, lasaitasunez eta eraginkortasunez jardun ahal izan dezan, ezinbestekoa du oreka emozionala. Oreka emozionala hausten denean, urduritasuna, beldurra, motibazio falta eta antzekoak gailentzen zaizkigu eta prozesu arrakastatsu bat izateko oztopo bihurtzen dira.

Egoera horiek gainditzeko ezinbestekoa izango da gure buruaren ezagutza doitua izatea. Doitua diogu, geure buruaren irudi negatiboa izanda ez baititugu gure indarguneak onartzen eta, beraz, ez baitugu sinestuko aurrean dugun erronkari aurre egin diezaiokegunik. Autoirudi gainbaloratua izanda, berriz, zaila da norberaren ahuleziak onartu eta onarpen horretatik abiatuta norberaren garapena ahalbidetzea.



Azaldutako bi printzipio hauetatik, gure ikasleek garatu beharreko ikasketa-prozesua diseinatzeko eta aurrera eramateko beste bi printzipio garrantzitsu eratoritzen dira.

Pertsona bakoitza bakarra eta errepikaezina da eta, beraz, testuinguru berean egonda ere, pertsona bakoitzak ikaskuntzak modu eta une ezberdinetan egiten ditu. Gutako bakoitzak gure gaitasun eta mugak edukitzeaz gain, ikaskuntzak prozesu ezberdinen bidez geureganatzen ditugu eta ezin dugu, beraz, pentsatu esperientzia bera jasotzen duten bi pertsonak ikaskuntza bera barneratzen dutenik. Edo alderantziz esanda, ikaskuntza bera jasotzeko, pertsona bakoitzak esperientzia ezberdinak bizi ditzake.

Pertsonaren garapen ebolutiboa aintzat hartu behar dugu gure esku-hartze pedagogikoan, adinari eta beste hainbat faktoreri dagozkien uneko ezaugarriak kontuan hartuz. Haur eta gazteen jokaeretan zein psikologian gertatzen diren aldaketak aintzat ez hartzeak espektatiba faltsuak eta alferrikako frustrazioak sortzen ditu eta ikasketa-prozesu arrakastatsua egiteko oztopo gertatzen dira.

Testuinguruari lotutako printzipioak

Izaki sozialak garen aldetik, elkarrekin jarduten dugu eta elkarrekin eraikitzen ditugu ezagutzak eta elkarrekin garatzen dugu pentsamendua. Elkarrekin egiten dugun eraikuntza horretan, noski, ezinbesteko tresna da hizkuntza, zenbat eta trebetasun linguistiko handiagoa izan, orduan eta hobeto pentsatzen eta komunikatzen dugu.

Hezkuntzaren testuinguruan, elkarrekintza hau bi mailatan gertatzen da: hezitzaileok kudeatutako egoeretan eta ikasleen arteko harremanean. Egoera edozein izanda ere, hizkuntzaren, pentsamenduaren eta komunikazioaren bidez elkarrekin ikasten dugu.

Hori horrela izanik, pertsona guztiok dugu ikasteko gaitasuna, testuinguru berean elkarrekin lan eginez. Guztiok dugu, beraz, elkarri ekarpenak egiteko eta elkarrekin proiektu bat eraikitzeke gaitasuna eta, beraz, guztiok testuinguru berean lan egin behar dugu.

Haur eta gazte guztiek dituzte hezkuntza-premia propioak eta testuinguruak, egiten zaion hezkuntza-eskaintzak, alegia, pertsona bakoitzari bere garapenean ahalik eta urrutien iristea ahalbidetu behar dio.

Pertsonen arteko elkarrekintzaz gain, ezinbestekoa da espazioaren eta denboraren kudeaketa ikaskuntza-prozesuaren zerbitzura jartzea. Eskolaren espazioak eta denborak ikasketa-prozesu arrakastatsua errazteko bitartekoak dira eta, hortaz, ikasketa-prozesuari ahalik eta ondoen erantzuteko moduan pentsatu behar ditugu.

Norabide horretan, hezkuntza-eremua ikastolatik harago hedatzen dela ikusi behar dugu, eta inguruko erakundeekin elkarlana sustatu.



Ikasketa prozesuari lotutako printzipioak

Neurozientzia eta psikologia pedagogikoaren eremuan, ikerketa ugari egin dira azken hamarkadetan eta, horiei esker, askoz ere hobeto dakigu, gaur egun, nola eraikitzen diren ezagutza berriak.

Luze ari gintezke gai honi buruz, baina, labur esateko, bi baieztapen ekarriko ditugu lerro hauetara: ezagutza berriak pertsona garapen-eremu hurbilean eta lehendik dakigunarekin konektatuta eraikitzen dira.

Garapen-eremu hurbila ikasleak bakarrik eta laguntzarekin ikas dezakeenaren artean dagoen eremua da. Ikasleari eremu horretatik urrun dagoen ezagutza berri bat eraikitzeke eskatzen badiogu, zailtasun handia izango du eta, ziurrenik, memorizaziora joko du, ezagutza berria ulertzeko ahaleginik egin gabe.

Bestetik, ezagutza berriak lehendik ditugun ezagutzekin konektatuz eraikitzen ditugula kontuan hartuta, ezinbestekoa izango da, ez bakarrik ikaslearen aurre ezagutzak ezagutzea, baita aktibatzea ere.

Bi baldintza hauek betetzen direnean, arrakasta lortzea errazagoa izango da, eta arrakasta izanik edozein jarduerari ekiteko motibazio-faktore nagusia, ezinbestekoa da arrakasta bermatzea. Kontua ez da zailtasunak ezkatzea, zailtasun horiek gainditzea baizik, baina ikasleari jarritako erronka bere garapen-eremutik urrun baldin badago, ezinak motibazio falta eragingo dio eta hau izango da porroterako biderik zuzenena.



Honetaz gain, eta ikaslea bera izanik ezagutza berriak eraikitzen dituen, akatsa ikasketarako tresna paregabea izango da. Esan bezala, ikaslea ez da guk transmititutako ezagutzak jasotzen dituen zakua eta, beraz, ezagutza berriak eraikitzen dituenean, ekidin ezinak izango dira akatsak. Akatsak, baina, ikasteko baliabide gisa ulertu behar ditugu, akats horien inguruko hausnarketatik ezagutza esanguratsuak sortzeko aukera izango baitu ikasleak.

Eta zein da hezitzaileon papera guzti honetan?

Hezitzaileon lana ikaslearen garapen-eremu hurbilean kokatzen diren eta bere aurre ezagutzekin konekta ditzakeen gatazka kognitiboak sortzea da. Gatazka kognitiboak pertsonaren ideia eta ikuspuntuak zalantzan jartzen dituzten informazioak edo esperientziak dira. Gatazka kognitiboek komunikazioaren eta hizkuntzaren erabilera sakona bermatuko dute eta metakogniziorako bideak zabalduko dizkie ikasleei.

Honetaz gain, hezitzaileok modelatze lana egin behar dugu, izan ere, ez baita eginez bakarrik ikasten, baita besteek egiten edo esaten dutena eginez ere. Ikaslearentzat eredu izanik eta ikasleari ereduak eskainiz, ikaslearen arrazamendua gidatzeko norabide esplizituak eman behar dizkiogu.

Hezitzaileon beste zeregin garrantzitsu bat ikasleari feedback-a ematea da. Feedback-a ezinbesteko tresna da ikaslearen ikasketa-prozesua erregulatzeko, izan ere, feedback-aren bidez ikasleari prozesuaren zer unetan dagoen ikustaraziko diogu eta aurrera egiteko hobekuntzak identifikatzen lagunduko diogu. Azken helburua, noski, ikasleak berak autoerregulatzeko gaitasuna garatzea da.



Oinarrizko hezkuntza-ildoak

Ari gara, pixkanaka, eguneroko gure jardunera hurbiltzen. Oinarrizko hezkuntza-ildoak gure hezkuntza-jarduna egituratuko duten oinarriak dira, nolabait esateko, Santo Tomas Lizeoko jarduna zuzenduko duten zimenduak.

“Hezkuntza-ildoak ikasleekin Pertsona-eredua lantzeko hautu pedagogikoak dira.”

Oinarrizko hezkuntza-ildoak

Oinarrizko hezkuntza-ildoak Santo Tomas Lizeoko pertsona-eredua garatzen laguntzeko hezkuntza-hautuak dira, ikasleekin pertsona-eredua lantzeko hautu pedagogikoak.

Oinarrizko 8 hezkuntza-ildo definitu ditugu.



Nork
bere burua
ezagutu



Ikasleen behar
eta interesetatik
abiatutako ikasketa



Euskara eta
euskaldun-
tasuna bizi



Komunitatea
bizi



Mundua
hobetu



Dinamika
globalizatuak
eta errealitatea



Ebaluazio
hezitzailea



Elkarren
arteko
ikaskuntza eta
irakaskuntza

Nork bere burua ezagutu

Gaur egun bizi dugun eta etorkizunean tokatuko zaigun ziurgabetasunez betetako munduan bizitzeko ezinbestekoa izango da, besteak beste, eta, batez ere, barne sendotasuna edukitzea. Etengabe eta izugarriko abiadan gertatzen diren aldaketen, teknologiaren eskutik datozen mehatxuen eta antzeko arriskuen aurrean, pertsona sendoak hezi behar ditugu, euren bidea, modu autonomoan, hautatu ahal izango dutenak.

Barne-sendotasun hori lortzeko, lehenengo baldintza, nork bere burua ezagutzea da, noski. Santo Tomas Lizeoak, beraz, ikasle bakoitzari bere burua, dimentsio fisiko, intelektual, sozial eta emozionalean ezagutzeko tresnak, espazioak eta denborak eskainiko dizkio.

Nork bere burua ezagutzeko hausnarketa pertsonala izango da baliabide nagusia, baina prozesuan zehar, ikasleak hezitzaileon aholkularitza eta akonpainamendua jasoko ditu, behar bezalako ibilbidea egin dezan. Kontuan har dezagun: autoezagutza-prozesuaren helburua ikaslea bere bizitzari dagozkion erabakiak hartzeko ahalduz da, bere burua zaindu eta garatu ahal izan dezan.

Orain arte esandakoaren arabera, autoezagutza eta barne sendotasuna helburu dira bere horretan, baina kontuan hartu behar dugu oinarri ere badirela beste zenbait helburu lortu ahal izateko. Horrela, printzipio psikopedagogikoetan aipatu bezala, norbere buruaren ezagutza doitu batetik bakarrik landu ahal izango ditugu pertsona-ereduaren gainontzeko ezaugarriak.

Hau guztia aurrera eramateko, ikastolak ikasleen garapen pertsonala ahalbidetuko duen hezkuntza-planteamendu sakona eta sistematizatua garatuko du.



Ikasleen behar eta interesetatik abiatutako ikasketa

Santo Tomas Lizeoaren egitekoa ikasle bakoitzak pertsona-ereduaren norabidean ahal duen garapen handiena egin dezan aukerak eskaintzea da. Eta egiteko hori betetzeko ezinbestekoa da, alde batetik, ikasle bakoitzaren beharretara egokitzea bere ikasketa-prozesua eta, bestetik, prozesu hori ikasle bakoitzaren interesak kontuan hartuta egiteko aukerak ematea.

Ikasle bakoitza bakarra eta errepikaezina izanik eta ikasle bakoitzaren garapena kontuan hartuta, guztientzako baliagarria den ikasketa-prozesu unibertsal bat eskaintzeak ez dauka zentzurik. Are gehiago, ikasketa berriak pertsonaren garapen-eremu hurbilean gertatzen direla eta ezagutza berriak aurretik dakigunarekin konektatuz eraikitzen direla jakinda, ezinbestekoa da ikasle bakoitzaren ikasketa-prozesua bere errealitatera eta beharretara egokitzea.

Aitzitik, pertsona-eredua ikastolak ikasle bakoitzari eskainiko dion ispilua izanik eta ikasle bakoitzak, bere buruaren ezagutzatik, erabaki propioak hartuko dituelarik, ikaslearen interesak ere kontuan hartu behar ditugu. Honek ez du esan nahi, noski, ikasle bakoitzak nahi duena eta hori bakarrik ikasiko duenik; gure misioa ikaslea mundurako prestatzea izanik, guztiek konpetentzia eta ezaugarri batzuk bereganatzea bermatu beharko dugu.

Beraz, ikastolak oinarrizko konpetentzia eta ezaugarriak lortzea bermatzeaz gain, ibilbide eta eskaintza malguak eskainiko dizkio ikasleari, ikasleak berak, modu autonomoan, pertsona-ereduaren lorpenaren bidean bere ibilbide propioa gara dezan.



Euskara eta euskalduntasuna bizi

Santo Tomas Lizeoaren izaeran eta nortasunean dago euskararen eta euskal kulturaren transmisioarekiko dugun konpromisoa. Pertsona-ereduaren bereizgarrietako bat pertsona euskaldunak heztea izanik, ikastolak euskaraz bizi den eta euskara eta euskal kultura bizi dituen ekosistema bat izan behar du.

Ikastolako ikasleek eta familiek euskararekin duten harremana oso anitza da eta errealitate horiek guztiak kontuan hartuta, euskaraz bizitzeko eta euskararekiko eta euskal kulturarekiko atxikimendua bizitzeko testuingurua izan behar du ikastolak. Helburu horrekin, gaur egungo gizartean, euskaldun izateko dauden modu anitzak ezagutzeko eta balioesteko esperientziak eskainiko dizkio ikastolak ikasleari.

Ikastolak, beraz, ikasleen ikasketa-prozesua euskaraz ardazteaz gain, ikasleei hizkuntza-erregistro anitzak, gazte-hizkera batez ere, lantzeko aukerak eskaini behar dizkio.



Komunitatea bizi

Pertsonok etengabe ikasten dugu eta etengabe ari gara gure burua garatzen. Gaur egungo gizarte hiperkonektatu eta estimuluz betetako honetan, ikaslea etengabe ari da ikasten; are gehiago, askotan, ikastolatik kanpo egiten dituen ikasketak esanguratsuagoak zaizkio ikastola barruan egiten dituenak baino. Horregatik, garrantzitsua da ohartzea ikasleen ikasketa-prozesua ez dela ikastolaren kontua bakarrik, baizik eta ikastola osatzen dugun komunitateko kide guztien nahiz inguruaren ardura.

Honek guztiak jarduteko modu hauek lehenestera eramaten gaitu:

- Ikasleek bere "gelatik" haratago, ikastolako gainontzeko pertsonekin elkarlanean egin behar dute euren ikasketa-prozesua.
- Ikasleen ikasketa-prozesua ikastola eremu guztietan gertatzen denez, modu sistematikoan koordinatu behar ditugu eremu guztietako jardunak, hala nola, kirola, eskolaz kanpoko ekintzak, jangela eta garraioa.
- Ikastolaren kooperatiba-izaera kontuan hartuta, gainera, familiek ikasleen ikasketa-prozesuan protagonismo handia eduki behar dute, bai prozesuaren diseinuan bertan eta baita inplementazioan ere.
- Ikastolak ingurura zabaldu behar du, eta auzoko, hiriko nahiz urrunagoko agenteekin batera aritu behar du ikasleen ikasketa prozesua aurrera eramaten eta aberatsago egiten.



Mundua hobetu

Gure misioak dioen bezala, Santo Tomas Lizeoko ikasleak mundua hobetzeko konpromisoa izan dezaten hezi nahi ditugu. Izan ere, pertsona-ereduan definitu ditugun ezaugarriek zentzua izango dute soilik konpromiso honekin lerrotatzen badira. Halaber, egokituko zaien munduan moldatuko diren ikasleak hezi nahi ditugula esaten dugunean, ez ditugu hezi nahi munduaren eskakizunei, modu otzanean, jarraituko dieten pertsonak, baizik eta, mundua ikuspegi kritikotik irakurri eta, beharrezko kodeak erabiliz, mundua hobetuko dutenak.

Norabide horretan, Santo Tomas Lizeoak gaitasun kritikoa eta konpromisoa garatzeko aukerak eskainiko dizkie ikasleei, etengabe planteatuko zaizkien erroka eta arazoei erantzuteko eta hiritar aktibo izateko gaitasuna gara dezaten.

Horretarako, ikasleak ingurune hurbil eta urruneko errealitateak ezagutuko ditu eta, horien hausnarketa kritikotik, errealitate horiek hobetzeko ekintzak sortu eta aurrera eramateko aukerak izango ditu.



Dinamika globalizatuak eta errealitatea

Zientziak erakutsi digun bezala, ikaskuntza esanguratsuak eta baliagarriak egiteko, testuinguru errealetan kokatutako dinamika globalizatuak dira metodologiarik egokienak. Izan ere, mundua diziplina edo jakintza gaietan sailkatuta ez dagoen bezala, gure garunak ere modu globalizatuan funtzionatzen du eta hala ulertzen du bizitza.

Dinamika globalizatuek gainera, pentsamendu konplexuari eta askotariko jakintzak erlazionatzeari egiten diote leku eta gaitasun horiek garatea ezinbestekoa izango da konplexutasunez betetako mundu bati aurre egingo dion pertsona batentzat.

Honek guztiak ikasleak subjektu aktibo izango dituen dinamikak diseinatzera garamatza, non ikasleak bere ibilbide propioak garatuko dituen eta, alternatiba ezberdinen artean aukeratuz, ikusmira irekia lortuko duen.



Ebaluazio hezitzailea

Behin eta berriz azaldu dugun bezala, ikaslea bere ikasketa-prozesuaren protagonista izango bada eta bere bizitzarako onuragarriak izango diren erabakiak hartuko baditu, ezinbestekoa izango du bere burua ebaluatzeke gaitasuna izatea.

Baina azken helburua hori izanik, hau da, ikaslea bere burua eta bere ikasketa-prozesua autoerregulatzeko gai izatea, hezitzaileok ispilu lanak egin behar ditugu ibilbide osoan zehar. Horregatik, ebaluazio hezitzailearen aldeko apustua egin du Santo Tomas Lizeoak, metakognizioaren eta feedback kualitatiboaren eta produktiboaren bidez, ikasleak uneoro jakin dezan non dagoen eta aurrera egiteko zer egin behar duen.

Bukaerako ebaluazio kalifikatzailea baztertu gabe, beraz, prozesuan zehar egiten den ebaluazioan hezitzailean jarriko dugu indarra, heteroevaluazioa, koevaluazioa eta autoevaluazioaren bitartez.



Elkarren arteko ikaskuntza eta irakaskuntza

Jakin badakigu animalia sozialak garela, eta beste hainbat jardueratan bezala, ikerketek esaten digute ikasleek taldean eta elkarrekin ikasten dutela ondoen.

Lankidetzan egiten den prozesu horretan, garrantzi berezia hartzen du ikasle batek besteari erakusteko prozesuak. Ikasketa "jasotzen" duen ikaslearen onuraz gain, irakasten ari den ikasleak ere onura handia izango du, besteei irakasteko prozesuan egin beharreko lanketak bere ezagutzak sendotzea ekarriko baitio.

Eta ikasleen arteko lankidetzaren onuragarria izanik, irakaskidetzaren, hau da, irakasleen arteko bultzatzea ezinbestekoa dela garbi dago. Irakaskidetzaren bi irakasle edo gehiagok elkarlanean ikasle talde baten ikasketa-prozesua diseinatzea, planifikatzea, inplementatzea, ebaluatzea eta hausnartzea da.

Irakaskidetzaren bidez, hainbat helburu lor ditzakegu:

- Irakasleen rol ezberdinen bidez, ikasketa pertsonalizatuagoa eman dezakegu.
- Irakasle ezberdinen begiradak batuz, ikuspegi bateratu eta integralagoa emango dugu.
- Ikasleentzat elkarlan egoki baten eredu izan gaitzake.
- Elkarrengandik ikas dezakegu, bakoitzaren indarguneak indartu eta ahuleziak gaindituz.



Curriculuma. Zer eta zertarako?

Curriculuma Hezkuntza administrazioak zehazten duen ikasi eta erakutsi behar dugun guztiaren antolaketa da. Curriculuma ez da, beraz, eduki multzo mailakatu bat soilik, askoz haratago doa eta hezkuntza-jarduna bideratzeko sortua da.

“Curriculuma ez da helburu izango, pertsona-eredua lantzeko bitarteko baizik.”

Curriculum Hezkuntza administrazioak zehazten duen ikasi eta erakutsi behar dugun guztiaren antolaketa da. Curriculum ez da, beraz, eduki multzo mailakatu bat soilik, askoz haratago doa eta hezkuntza-jarduna bideratzeko sortua da.

Dena den, ezin dugu curriculum proposamen itxi eta zurrun gisa ulertu, gehiago izan behar du. Gure helburua lortzeko, ikastolak definitutako pertsona-eredua lantzeko, proposamen ireki eta dinamikoa.

Gaur gaurkoz, curriculum kompetentzietan oinarritzen da eta honela egituratzen da, labur esateko: ikasleak arlo bakoitzean lortu behar dituen kompetentzia espezifikoak definitzen ditu (lorpen maila neurtzeko ebaluazio irizpideekin) eta kompetentzia horiek lortzeko landu beharreko oinarritzko jakintzak zehazten ditu. Honekin batera, kompetentzia espezifikoaren bitartez lortzen diren funtsezko kompetentziak ere definitzen ditu. Kompetentzia horien guztien bildumak osatzen du ikaslearen irteera-profila.

Curriculum ofiziala baina, geure egin behar dugu eta Santo Tomas Lizeoko curriculum bihurtu, ikastolaren eta gure inguruaren berezitasunak aintzat hartuz eta berezitasun horiei erantzunez.

Gure kasuan, curriculum ez da helburu izango, definitu dugun pertsona-eredua lantzeko bitarteko baizik. Printzipio honek bi ondorio nagusi ditu:

→ Curriculum lantzeko, oinarritzko jakintzak eta kompetentziak lantzeko, alegia, hamaika modu ezberdin daude eta guk egin dugu gure hautua: oinarritzko hezkuntza-ildoak dira curriculum ulertzeko eta lantzeko gure modua eta, beraz, hezkuntza-ildo horien begiradatik ulertu eta garatu behar dugu.

Kontuan hartu behar dugu oinarritzko hezkuntza-ildoak direla, hain zuzen ere, gure jarduna pertsona-ereduari begira jartzeko bermea.

→ Curriculumak, oro har, oso zabalak izaten dira eta ezinezkoa da bertan ageri diren jakintza guztiak landu eta, batez ere, behar den bezala ebaluatzea. Honek, derrigor, aukeraketa bat egitera behartzen gaitu. Aukeraketa hori egiteko orduan, irizpide nagusi bat erabiliko dugu: pertsona-eredua lantzeko egokienak diren jakintzak eta kompetentziak lehenetsiko ditugu.

Esan bezala, beraz, ezin dugu curriculum jakintza arlo bakoitzetik begiratu, ikuspegi globaletik landu eta pertsona-ereduaren lanketaren zerbitzura ipini behar dugu, oinarritzko jakintzak eta kompetentziak landuz, egokituko zaion munduan biziko den eta mundu hori hobetuko duten pertsonak hezteko.

Eskertza

Ezin dugu, noski, Hezkuntza Marko Orokor honen idazketa bukatu, prozesuan ezinbestekoak izan zareten guztioi, zuen laguntza eskertu gabe.

Lehenik eta behin, Santo Tomas Lizeoko komunitate osoari: familia, langile eta ikasle guztiei, zuen ekarpenik gabe Hezkuntza Marko honek ez luke zentzurik.

Ikastolen Elkarteari: ikastola guztiontzat sortutako hezkuntza markorik gabe, gurea ez litzateke posible izango.

Prozesu honetan zehar bidelagun izan zaituztegun Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko (HUHEZI) eta Reimagine Education-eko lagunei. Nora jo ez genekien une horietan, zuei esker aurkitu dugu bidea.

Eta azkenik, bidean zehar atea zabaltzeko gure eskura giltzak jarri dituzuen ikastola guztiei, bereziki Axular Lizeoa ikastolari.

Eskerrik asko guztioi.

Irudikatu



